



EGUN OSOKO FESTA UGANE AUZOAN

Gaur auzoko festa eguna ospatuko dute uganearek; txirringarritza proba eta bazkaria izango dira, besteak beste >3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-10-17

VIIURTEA 1.803.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ezker-eskuin: Anjel Irastorza (Foru Aldunditik), Xabier Sabalza (Eusko Jaurlaritzatik), Jose Luis Azkue (Lehiberri) eta Jokin Bildarratz (Tolosaldea Garatzenetik), atzo eginiko aurkezpenaren. I.TERRADILLOS

INFORMAZIOARI ETA TEKNOLOGIARI GARRANTZIA EMANEZ

TOLOSALDEA Informazio eta Komunikazio Teknologien Astea antolatuko du Lehiberri, hilaren 26tik 30era; enpresari eta langileei teknologia berriei eskaintzen dituzten baliabideez jabetzea da helburua 2

Tolosa-Alegia tartean alegazioak egiteko deia egin du AHT Gelditu! elkarlanak

TOLOSALDEA Alegazio-orriak ohiko leku eta tabernatan utziko dituzte 6

Amazabal pilotalekuan jokatu dituzte gaur Nafar Jokoen neurketak

LEITZA Aurrerakoek hau eta beste hainbat txapelketa jokatu dituzte asteburuan 7

Lizardiren eskutik, ikastaroak historiari buruz

TOLOSA Bost hitzaldi izango dira, astelehenero, urriaren 26tik; izena eman daiteke oraindik 6

LABek «azken erasoak» salatu ditu eskualdean

TOLOSALDEA Tolosa, Ibarra, Villabona eta Zizurkilen elkarretaratzeak egin zituzten 6

UNAI MUÑOZA BERTSOLARIA

«Nire maila ematen dudala sentitu nahi dut, gozatzera noa»

BERROBI Gaur estreinatuko da Txapelketa Nagusiko laugarren kanporaketan, Uztaritzen 5



Gure baserritik, haragia zuzenean etxera

5 Kg-ko sorta 58€tan (banaketa DOAN)
Xerrak (hiru mota), haragi xehea, sailheskia, zankarra, gisatua, txuleta.

Proba ezazu, egin eskaria:

943-30 43 32 (ordutegia: 9:00-17:00) edo saski@lurlan.org
Dendak: Bulevard 7 eta San Martin merkatuko C4 postuan (Donostia)




Teknologia berriek duten garrantziaz jabetzeko jardunaldiak antolatu dituzte

Gizartea » Hilaren 26tik 30era zortzi ikastaro eskainiko dituzte doan; interesa duen edonork hartu ahalko du parte.

INIGO TERRADILLOS

Lehiberrik Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Foroak Tolosaldea Garatzen eta Enpresa Digitalarekin batera elkarlanean Tolosaldeko Informazio eta Komunikazio Teknologien Astea antolatu dute urriaren 26tik 30era. Enpresak eta langileak teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideez jabetzea da ekimen honen helburua.

Eskualdeko zortzi enpresa, hiru udal (Tolosa, Alegia eta Asteasu), bi formazio zentro, Tolosaldea Garatzen eta Gipuzkoa Berritzen daude Lehiberriaren baitan. Jokin Bildarratz Tolosaldea Garatzenen lehendakariak atzo eginiko aurkezpenean azaldu bezala, «berrikuntzan eta formazioan oinarrituz eskualdean ekonomia eta enplegua sustatzeko helburuz sortu zen Lehiberri; enpresariekin eta enpresariarentzat egiten da lan». Hain zuzen ere, teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak ezagutzeko asmoz antolatu dute ikastaroez antolatutako astea, eta gainera, «hau guztia langileek nahiz enpresariak eskura izan dezaten, lantegiari gertu, industrialdeetan jarriko dugu».

Bost industrialdeetan

Enpresetan aplikazio erraza eta simplea duten gaiak jorratuko dituzte doako ikastaroenetan. Guztira bi orduko iraupena izango duten zortzi ikastaro desberdin izango dira, eta hauek eskualdeko bost in-



Jose Luis Azkue, Xabier Sabalza, Jokin Bildarratz eta Angel Irastorza, atzo eginiko aurkezpenean. I. TERRADILLOS

dustrialdeetan eskainiko dituzte: Tolosako Usabalen, Ibarra Apatia Errekan, Irurako Katategin, Asteasuko industrialdean eta Adunako Haizpea-Urtakin.

Jorratuko dituzten gaiak ondorengoak dira: gailu mugikorren bidez bulegoan izango bagina bezala lan egiteko Internetek eskaintzen dizkigun aukerak ezagutzea; sareak Office eta Excel motako dokumentuak egin eta bertan modu ziurrean gorde eta agenda izateko eskaintzen dizkigun doako erremintak; edonorekin dohainik hitz egiteko programak eta bilera bat egitea zauden lekutik mugitu gabe; Internet erabiltzea 24 ordu zure produktu eta zerbitzuen erakusleho eraginkor bat izateko; internautak produktu edota zerbitzu bati buruzko informazio orokorra bilatzean gure enpresaren web orriari iristea; sarearen bidez komunikatzeko dauden modu berriak ezagutu; sarean web orri per-

sonal baten bidez zure txoko propioa izan; eta dirua eta denbora aurrezte Internet bidez.

Interesa duen edonork parte hartu ahalko du ikastaroenetan, baina horretarako izena eman behar da aurretik. Tolosaldea Garatzenen web orrian (www.tolosaldeagaratzen.net), 943 65 45 01 telefono zenbakian edota enpresa@tolosaldea.net helbidera idatziz egin ahalko da. Jardunaldietan parte hartzen dutenen artean tamaina txikiko 6 ordenagailu eramangarri zozketatuko dituzte.

Berrikuntza lehiakor izateko

Eusko Jaurilaritzako Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendariak Xabier Sabalzak adierazi bezala, «enpresak lehiakor izateko berrikuntza da zutabe nagusietako bat, horregatik dira garrantzitsuak gisa honetako ekimenak, eta horrelakoetak Eusko Jaurilaritzaren babesa egongo da».

Bestalde, Angel Irastorza Gipuzkoako Foru Aldundiko Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendariak Lehiberri bezalako ekimenak zoriondu nahi izan zituen, eta «baita erakundeak ere horrelakoak babestegatik, ekintza berri-tzailea baita; egungo gizartea digitala da, beraz, enpresak ere horretara egokitu behar dute».

Beharra ikusten zutelako sortu zutela Foroa azaldu zuen Jose Luis Azkue Lehiberriko lehendakariordeak: «jendeari erakutsi nahi diogu laguntzeko gaudela, edozein enpresa sar daitekeela, eta baliagarria den informazioa trukatzela dela helburu nagusia».

Dendarientzat ere bai

Tolosako KZgunea ere emango dituzte ikastarok, hilaren 26tik 30era. 14:00etatik 16:00etara bereziki dendariei zuzendua izango dira, eta 18:00etatik 20:00etara gainerakoek.

» DATUAK

■ **Ekimena.** Tolosaldeko Informazio eta Komunikazio Teknologien Astea.

■ **Helburua.** Enpresari eta langileei teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailen berri ematea doako ikastaroen bidez.

Egitaraua

Urriak 26, astelehena.

Tolosako Usabal industrialdea:

■ 09:30-11:30: *Internet: erakusleho berri bat.*

■ 12:00-14:00: *Aurreztu telefonian: Skype eta IP telefonía.*

■ 15:00-17:00: *Faktura elektronikoa erabiliz gastuak aurreztu.*

Urriak 27, astearte.

Ibarra Apatia-Erreka industrialdean:

■ 09:30-11:30: *Mugikortasuna: lan egin ezazu non-nahi bulegoan izango bazina bezala.*

■ 12:00-14:00: *Hobetu zure produktibitatea doako erremintekin.*

■ 15:00-17:00: *Zure enpresaren web orria bilatzaileen lehen postuetan.*

Urriak 28, asteazkena.

Irurako Katategi industrialdean:

■ 09:30-11:30: *Aurreztu telefonian: Skype eta IP telefonía.*

■ 12:00-14:00: *Faktura elektronikoa erabiliz gastuak aurreztu.*

■ 15:00-17:00: *Mugikortasuna: lan egin ezazu non-nahi bulegoan izango bazina bezala.*

Urriak 29, osteguna.

Asteasuko industrialdean:

■ 09:30-11:30: *Zure enpresaren web orria bilatzaileen lehen postuetan.*

■ 12:00-14:00: *Internet: erakusleho berri bat.*

■ 15:00-17:00: *Hobetu zure produktibitatea doako erremintekin.*

Urriak 30, ostirala.

Adunako Haizpea-Urtaki industrialdean:

■ 09:30-11:30: *Faktura elektronikoa erabiliz gastuak aurreztu.*

■ 12:00-14:00: *Mugikortasuna: lan egin ezazu non-nahi bulegoan izango bazina bezala.*

Zuzenketa. Alpino Uzturre Mendi elkarrekin antolatzen duen Hernialdeko Rolleski igoera datorren larunbatean, hau da, hilaren 24ean izango da, eta ez gaur, atzoko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA irakur zitezkeen bezala. Barkatu eragozpenak.

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa). Etxeak. Amarozen, San Frantziskon eta Iurren.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantziskon, Araba etorbidean, Iurren eta Batxiler Zaldibian, erosteko aukerarekin.
Salgai (Tolosa). Etxebizitzak. Larramendin, igogailuarekin, eraikuntza berria eta San Frantziskon. Aukera onak.
Salgai. Etxebizitza eraberritzea. Iuran 20.000.000 pztz eta beste bat Iuran sartzeko moduan. Eskaintza ona.
Salgai. Garaje itxiak eta irekiak. Amarozen (Tolosa), Ibarra eta Iruran.
Salgai (Tolosa). Lokala. Gorriti plazan.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

KZgunean sartu ahal izateko sistema berria abiaraziko dute

Anoeta » ONA txartelaren bidez baimenduko dute sarbidea; horretarako txartela tutoreari eraman behar zaio.

ERREDAKZIOA

Orain arte ordutegi mugatua izan du Anoetako KZ guneak. Baina laster hori aldatuko da. Izan ere, proiektu berri bat jarriko dute martxan erpe laburrean, sartzeko sistema berri bat, hain zuzen ere. Honi esker herritarrek nahi duten ordutegian erabili ahal izango dute

KZ gunea, sarrera automatikoa izango baita ONA txartelaren bidez.

Horretarako, ONA txartela eraman behar zaio tutoreari, honek prestatzeko sartu ahal izateko. Hortaz, arduradunek gogoratu nahi izan dute tutorea ostiraleko joaten dela KZgunea, hilabete honetan goizez (09:00etatik 13:00etara), eta azaroan arratsalde (16:00etatik 20:00etara).

Mementoz, eta erabiltzaileek beren ONA txartela konfiguratu ere, KZgunea zabalik egongo da ohiko ordutegian, astearte, asteazken eta ostegunetan 11:00-13:00,

eta ostiralean (hilabete honetan 09:00-13:00, hurrengoan 16:00-20:00). Baina azaroaren 16tik aurrera erabiltzaile bakoitza bere txartelarekin sartu behar da. Horregatik Udalak dei egiten die erabiltzaileei bere txartela lehenbailehen prestatzeko.

Gipuzkoan estreinakoz

Anoeta proiektu hau martxan jarri den Automi Erkidegoko bigarren herria izango da. Orain arte Moredan (Arabako Errioxa) bakarrik burutu dute, eta bertan «oso ondo» ari dela funtzionatzen azaldu dute.



Sartzeko sistema berria. HITZA

Gaur eta bihar kirol eskaintza ezberdinak daude Villabonan

E. MAIZ

Villabonan asteburu honetan kirolaz gozatzeko aukera dago. Saski-baloia, pilota partidak, areto futbolaria eta mendi irteera izango dira.

Gaurko kirol eskaintza

10:00etan, Olaederra kiroldegian, saski-baloia izango da, eskola kiroleko benjamin talde guztiak (LH 3. eta 4. mailak). Olaederra Kiroldegian bertan 11:00etan, areto-futboleko jokatu dute Eskola Kiroleko infantil neskek (DBH 1. eta 2. mailak) Jesusen Bihotza, Loinazpe Idiazabalen aurka.

Bestetik, Villabonako Bearzana Frontoian, 17:00etan hasita, Pilota partidak izango dira. Seniorrak, 1. maila Behar Zana (Lizaso-Erreka), Usurbil 2ren aurka. 18:00etan, Olaederra kiroldegian, Euskal Ligako areto-futbola izango da, Irish Pub Sheperd's (Egintza), Gernikako Lagunak FKTren aurka.

Igandean, 07:30ean Olaederratik abiatuta, Aizkardik antolatutako mendi irteera izango da Arrazola, Anboto eta Aramaiora.

Zakurren jabeek zuzenduriko bandoa atera du Villabonako Udalak

E. MAIZ

Txakurren jabe diren guztiei jakinarazten zaie ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoan dioena. Txakurrak kontrolatuta eraman beharko dira beraien ezaugarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta eta bestetik, debekatua dagoela txakurren gorozkiak bide, kale eta plaza edo parke publikoetan uztea. Ondorioz, interesatuei legea bete dezatela eskantzen zaie. Bete ezean, dagokion zigor-prozedura martxan jarriko da, isuna jarritz.

L Laburrak

Alkartasuna Elkartera podologoia etorriko da

ANOETA • Urriaren 20an, Alkartasuna Elkartera Nagore Franco podologoia etorriko da. 15:00etatik aurrera hasiko da bere zerbitzua eskaintzen. Dagoeneko 13 lagunek eman dute izena. Hala ere, bertara agertzen den jende guztia pasa arte egongo da. Alkartasuna Elkar-teak, zerbitzu hau hilerio eskaintzen du.

Ongizate pertsonalerako gomendioaren hitzaldia

ANOETA • Asteazkena, hilak 21, Alkartasuna Elkar-tean hitzaldia izango da. Urtean bost hitzaldi izaten dituzte eta urte honetako azken hitzaldia hau izango da. Azken honetan, *Ongizate pertsonalerako gomendioak eta autoestimua* izango da jorratuko duten gaia. 18:30ean hasiko da eta hizlaria Sonia Ulazia izango da.

Etxebizitza babestuen zozketa egingo dute

ZIZURKIL • Urriaren 28an, 33-33' guneko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko zozketa izango da. Atxulondo kultur etxean bilduko dira eta 19:00etatik aurrera izango da. Zizurkilgo 33-33' gunean eraikiko diren 33 etxebizitza, garaje eta trastelekuak izango dira zozketatuko direnak.

Zinema eta kontzertu lirikoak Gurea Zinemari

VILLABONA • Gaur 20:00etan Ainhoa Iparraguirrek pianoa jotzen eta Haizea Muñoz sopranoak eskainiko duten kontzertu lirikoak izango da Gurea Zinemari eta doan izango da. Jarraian, 22:30ean *Millenium* (*Los hombres que no amaba a las mujeres*) filma ikusteko aukera egongo da 4, 5 euro ordainduta. Bihar 17:00etan haurrentzako *Ice Age 3* filma izango da eta 3 euro ordaindu beharko da sarrera. 19:30ean *Millenium* ikusteko aukera egongo da 4, 5 euro ordainduta. Astelehenean, ikuslearen eguna izango da eta 3 euroren truke *Millenium*, hau da, *Los hombres que no amaba a las mujeres* filma ikusteko aukera egongo da 21:30etatik aurrera.



Argitxoren ezusteko bisita

VILLABONA • Pasa den urriaren 9an, Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolan, bisita pozgarria jaso zuten, izan ere, Argitxo bera joan zen haur guztiak ezagutzera. Sorpresa «galanta» jaso zutela kontatu

dute «bizikleta eta guzti etorri baitzen ikastolara». Haur guztiak agurtu ostean, goxokiak banatu zituen eta poz-pez joan zen bere etxera haur guztiak euskaraz hitz egiten zutela ikusi ostean. HITZA

Egun guztian zehar Uganen auzoko festa ospatuko dute

Ugane » Egun osorako egitaraua eta adin guztietarako ekintzak prestatu dituzte auzotarrek.

ERREDAKZIOA

Gaur auzoko festa eguna ospatuko dute uganearek. Auzotarrez gain, inguruko jendea bertaratuko da Uganeko jai egunaz gozatzera.

Egun guztiko festa

Urtero bezala, egunari hasiera bizikleta gainean emnago diote. XI. txirrindulari igoera egingo baitute. Ondoren, Hernaniko bertsolari gazteak ariko dira bertsoak botatzen eta Eneritz eta Edurne trikitilariak giroa alaituko dute hamaiketako egiten ari diren bitartean.

14:00etan, Auzo Bazkaria egingo dute eta bazkalostean, toka eta mus txapelketak egingo dituzte. Haurrek ere beraien jolasak egite-



Txirrindulari igoeraren ostean hamaiketako egiten. NEREA URBIZU

» EGITARAUA

- **12:00.** XI. Txirrindulari Igoera.
- **Hamaiketakoan.** Hernaniko bertsolariak eta Eneritz eta Edurne trikitilariak.
- **14:00.** Auzo Bazkaria.
- **Ondoren.** Toka eta Mus Txapelketak.
- **17:30.** Ume Jolasak.
- **Iluntzean.** Santuipenkoen Kontzertua.

ko aukera izango dute eta hori 17:30ean izango da. Jarraian, saskiaren zozketa egingo dute, horretarako egun guztian zehar, saskiaren txartelak salgai egongo dira.

Bukatzeke, iluntzean, Santuipenkoen kontzertua izango da. Gainera, egun guztian zehar, barra txiki bat egongo da eta bertan, ez da mojitxo eta garagardorik faltako. Beraz, auzotarrek jai giroan pasatzeko eguna prestatu dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Inoiz baino jende gehiagok hartu zuen parte, herenegun, patata tortilla lehiaketan. I. TERRADILLOS

Azken txanpan sartu da San Estebango Kultur Astea

Tolosa » Umeak eta musika izango dira gaurko protagonistak; bihar, auzokideen arteko bazkaria egingo dute.

ERREDAKZIOA

San Estebango Kultur Astea azken asteburura heldu da. Gaur arratsaldean umeei zuzenduriko ekitaldiak izango dira, batik bat. Altxorraren bila ariko dira lehenik, buruhandien eta jolasen txanda izango da ondoren eta txokolate arratsalde pasari. Guztia, 16:00etatik aurrera. Gauean musikari egingo diote tartea, 24:00etatik aurrera. Biharko auzokideen bazkariarekin itxiko dute Kultur Astea. Aurtengoan babarrun jatea izango dute Ferialekuan.

Patata tortilla lehiaketa

Pasa den astelehenean Tolosan erroturik dagoen herri krosa izan

zuten. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu eta ohi baino jende gutxiagok hartu zuen parte. Hala ere, Behobia-Donostia lasterketarako baliatu zuten askok eta kanpotik ere etorri zen jendea kroseean parte hartzeko.

Herenegun antolaturiko ekitaldiarekin ere oso gustura zeuden antolatzaileak. Bezperako diaporaman jende gutxi egon bazen ere, patata lehiaketak jende gehiago bildu zuen. Hain zuzen, inoizko jendetsuena izan zen.

Parte-hartzaileak auzokoak bertakoak edota auzoarekin lotura zutenak izan ziren, batik bat. Antolatzaileek oinarritzko hiru osagaiak eman zizkieten Ferialekuan bildu ziren partaideei (olioa, patata eta arrautza). Gainerakoak euren esku geratu ziren, gustuen eta abileziaren arabera.

Ondoren, luntxa izan zuten guztiontzat. Eta gauean antzerkia izan zen auzoan, *Yo los mate, evidentemente* antzezlan eskaini zuten, Jaime Ocañare partetik.

» EGITARAUA

Urriak 17, gaur

- **16:00.** Altxorraren bila eta mus txapelketa
- **16:30.** Haur jolasak eta zaldi gurdian paseoa auzotik.
- **18:00.** Buruhandiak.
- **19:00.** Txokolate jatea.
- **24:00.** Makulu Ken taldearen kontzertua. Ondoren, Rock and Roll, Break Beat eta Drum and Bass gauda Jokin eta Gorkitaren eskutik.

Urriak 18, bihar

- **09:00.** Diana herriko txistulariekin.
- **10:00.** Trikitixa herriko baserrietan.
- **11:00.** Meza auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan.
- **12:00.** Toka txapelketa gizoneko-emakumeentzat auzoko txarangak alaituta.
- **14:00.** Auzoko babarrun jatea.
- **Ondoren.** Dantzaldia Koxkorrena orkestrarekin.

Komertzio foroak antolatuta 'Debote enbote' saioa, gaur

Tolosa » Pasa den irailean jarri zuten martxan larunbatetan ekitaldiak antolatzeko ekimena «komertzioa indartzeko».

ERREDAKZIOA

Tolosako komertzio foroaren ekimenez pasa den irailean larunbat arratsaldeetarako jarduerak antolatzeari ekin zioten, «komertzioa indartzeko». Gaurkoan jarduerak bilduma honen hirugarren saioa izango da. *Debote enbote* zirku tailerra izango da Triangulon, 17:00etatik aurrera. Batetik, malabarismo, oreka etabarren tailerra egingo dute bi orduz; eta, bestetik, zirkuia, musika eta kale antzerkia izango dira, ordubetez.

Aurkezpena egin zutenean, fo-

roaren esanetan, «larunbat goizetan jende ugari izaten da Tolosan azokak bultzatuta, eta horrek jarraipena izan dezan arratsaldean nahiko genuke». Antolatu dituzten ekitaldiak bereziki gaztetxoei zuzendurikoak dira, eta antzerki musikala, zurezko jolas tresnak, malabarismo eta oreka tailerra, makillaje, globoflexia eta lepoakoen tailerra, haur dantzaldia, animazioa, desfilea eta haurren herri kirolak eta jolasak eta magia eta umorea izango dira ardatz. Triangulo plazan, Plaza Berrian eta San Frantzisko ibiltokian zehaztu dituzte lehendabiziko jarduerak. Hala, familiak animatu nahi dituzte animazio jarduerak hauek joatera, «azken batean, larunbat arratsaldean ere herrian geratuz, berezoren fidelotasuna lortuko baitugu».

Laburrak

Makrobiotikako ikastaroa antolatu dute

ALEGIA » Makrobiotikako ikastaroa antolatu dute. Hilabete inguru iraungo du eta Aitor Jimenezek zuzenduko ditu saioak. Txintxarri elkartean egingo dituzte, urriaren 27tik azaroaren 24era, asteartean 19:00etatik aurrera. Interesatuek Kultur Etxean bertan eman dezakete izena.

Dani Rubioren eskutik, txalaparta ikastaroa

ALEGIA » Makrobiotika ez ezik txalaparta tailerra ere antolatu dute Alegian. Dani Rubio izango da irakaslearekin eta Kultur Etxean garratuko dira saioak. Larunbatetan izango da hau, 16:00etatik 18:00etara eta urriaren 24tik azaro bukaera bitarte. Izen-ematea, Kultur Etxean egin daiteke.

mantangori rekin
6 DVD euskaraz
Zinema etxean 4
Larunbat honetan
Gipuzkoan eta Nafarroan
berria

HARRIDEDUNENTZAT, BILDUMA OSGAIA 26 €
ESKARIA: EGITEKO 943 30 43 45, harpidetas@berria.info
edo www.berria.info

Babesak: EUSKO JAURRIARITZA, GIBUZKO JAIKORITZA, GIBUZKO JAIKORITZA

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

ASKATASUNAREN
eskubide guztiak guztiontzat *alde*

GAUR
DENOK DONOSTIARA
MANIFESTAZIOA Antiguatik 17:00

ELA-LAB-ESK-STEE/EILAS-EHNE-HIRU

«Gozatu egin nahi dut, eta sentitu nire maila ematen dudala»

Unai Muñoa » Gaur estreinatuko da Berrobiko gaztea Txapelketa Nagusian. Gipuzkoakoan, finalerdietara iritsi ostean sailkatu zen Euskal Herrikorako; lehendabiziko aldiz hartuko du parte lehia handian.

ESTI EZEIZA

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko laugarren kanporaketak jokatu dute gaur, Uztaritzeko Kiroleta pilotalekuan. Bertan lehiatuko da Unai Muñoa. Saioa 17:30ean hasiko da, eta bertan, Joana Itzaina izango da gaitzartzailea. Muñoarekin batera, bost bertsolari ariko dira ahal duten gutzia ematen, taula gainean: Beñat Gaztelumendi, Aitor Sarriegi, Arkaitz Estiballes, Xabi Paia eta Erika Lagoma. Hemen irabazten duena, zuzenean finalurrekoetarako sailkatuko da, Bergaran, azaroaren 7an jokatu denerako, hain justu.

Gaur zure txanda; zer moduz?

Gogotsu, oholtzara igo nahi baitut, gogoz, animoarekin eta ongi abes-tera. Bestalde, urduri eta lasai nago aldi berean. Hala ere, joan den astean urdui egoz nintzen. Kontraesana ematen du, baina horrela izan da. Bilboko saioan pixka bat lasaitu nintzen, eta aste honetan hobeto egozten naiz.

Nola ikusten duzu gaurko kanporaketa? Saio polita aterako al da?

Bai. Hor dauden bertsolari guztiak esperientzia eta eskarmentu handikoak dira. Baina aldi berean, ezaugarri ezberdinak dituzte. Hala, hor dagoen bakoitzak egun ona izango balu eta barruan duen onena eman, saioa egundokoa

Diskurtsoan ahaleginduko naiz, eta horretan asmatu dezakedala uste dut

Txapelketa honetan ez dut asko jokatzeko baina aldi berean presioa eta urduritasuna hor daude

izango litzateke. Baina, ikusi egin beharra dago, bakoitza zembateraino iristen den. Publikoarekiko konektatu, eta aldi berean, presioa kudeatzerako garaian.

Nola prestatu zara Txapelketa Nagusirako?

Bereziki ez dut ezer egin. Txapelketaren ihesean ibili naizela esan daiteke. Udan bertsoen mundutik nahiko aldentuta egoz naiz. Orain berriz, ikasturtea hastearrekin batera bertso eskola batzuetan aritu naiz, kide batzuekin elkartuz, gaiak elkarrizkatzu, komentatu... Baina, etxean, bakarka ez naiz aritu prestatzen.

Prestaketa, teknika bakarrik izan al da?

Lan teknikoa baino gehiago, sentibilitatearena egin dut. Hau da, zein ekarpen egin nahi dudanez eta zertaz abestu nahi dudanez pentsatzeaz gehiago arduratu naiz, hau da, diskurtsoaz. Eta hori egunerokoan iturri askotatik jasotzen duzu: irakurtzetik, harremanetatik... Pertsonen eboluzio hori aritu naiz lantzen. Horrekin oso zentratua nago.

Txapelketako presioa nola eraman ere, ikasten al da?

Nire sentsazioa da, txapelketa honetan ez dudala asko jokatzeko, baina aldi berean, presioa eta urduritasuna hor daukat. Horregatik, buelta asko eman dizkiot buruari, lehian jartzeko zarelako, konparazioan, eta hainbat hausnarketa egin ditugu. Bakoitzak bere buruari zer eskatzen dion, zer esaten dion, zein itxura emango duen, zer pentsatu duen... Hori dela eta, ideia horiek guztiak urruntzen saiatzen ari naiz. Azken batean, aste hauetako entrenamendu garrantzitsuen hori da, aldarre onean egotea, eta psikologikoki ongi sentitzeko zein mamu uxatu erabakitzea.

Batzuk diote egun ona edo txarra izan dezakeela bertsolari batek, eta horren arabera, gauzak aldatu. Beste batzuen ustetan, kasualitateak ez dago. Zuk zer iritzi duzu?

Nik ere kasualitateetan ez dut sinesten. Hala ere, Txapelketak ez du erabakitzen eta zehazten bertsolarien maila. Egunak asko baldintzatzen du. Batetik, bakoitza dagoen aldarrearen eta bizitzako unearen arabera. Norbaiti, gertatu dakioke, saioa baino bi edo hiru egun lehenago aita izatea. Eta horrekin eragin behar du bertsolarako garaian. Beste batzuek berriz, izugarrizko presioa egiten diote beraien buruari, eta ondorioz, blokeatuta geratu. Azken batean, edozer gerta daiteke, baina hau kasualitate ez da. Hala ere, maila duenak, normalean, erakusten du. Txapelketa, horretan, nahiko justua dela uste dut, nahiz eta egun bateko saioarekin ezin den ezagutu bertsolariaren maila.

Zer sentitzen duzu, taula gainera igo eta horrenbeste jenderen aurrean, bertsotan aritzean?

Alde batetik, euforia puntu bat sentitzen duzu. Jendea zain dago zuk abesteko eta protagonismo bat hartzen duzu. Oholtzak badu, norberaren egoari jaten ematen dion zerbeit. Gustuko zerbeit da, komunikatzeko, esateko eta gauzak adierazteko espazio bat ematen dizute, baita mikrofono bat ere, eta horrek euforia puntu bat ematen du. Baina

aldi berean epaitua zara. Eta horrek, denoi ematen digu beldurra. Zer pentsatu dute, ondo egingo dut, maila emango al dut, besteak bezain beste al naiz, eta beste hainbeste galdera egiten dizkiozu zure buruari, eta zurrumbilo horretan sartzen zara.

Txapelketa bateko lehen helburua irabaztea da, baina jarri al diozu zure buruari epe motzeragoko beste xederik?

Topikoa izango da, baina saioan gozatzea da nire lehen helburua. Gozatu nahi dut, eta sentitu nire maila ematen ari naizela. Hortik aurrera, epaia ez dago gure esku eta horretan ez dut horrenbeste arreta jarriko. Hala ere, onartzen dut, finalurrekoetara iritea gustatuko litzaidakadela, eta helburua hor daukat. Finalerdietan abestea ohore bat izango litzateke.

Txapelketan bi epaile daude: epaimahai ofiziala, eta publikoa. Nork arduratzen zaitu gehiago?

Bertsolarako garaian, puntuazioaren baitan, epaimahaiakoei abesten zaie, beraien baitira, erabakiko dutenak. Baina aldi berean, benetako presioa publikoak jartzen dit. Txapelketan hanka sartuko banu, amorruta ez lidake emango aurrera ez egi-teak, baizik eta, publikoaren aurrean eman dezakedan itxurak.

Txapelketa askotan hartu duzu parte, baina behin ere ez, Txapelketa Nagusian. Salto handia.

Bai, gainera. Gipuzkoakoan parte hartu nuenean, horien nire helburua, finalurrekoetara iritsi eta Txapelketa Nagusirako sailkatzea. Hori lortu nuenean izugarrizko poza hartu nuen eta prestatu egin behar nuela pentsatzen hasi nintzen. Horrekin lotuta ere, ez txapelketatik bakarrik, baina urte hasieran dietan hasi nintzen, gero oholtzan hobeto sentitzeko. Or-

» BIHARKO AURKARIAK NOLA IKUSTEN DITUZU?

- **Beñat Gaztelumendi.** Xorro-xorro, bere bidea egin duena, eta txapelketan paper ona egingo duena.
- **Aitor Sarriegi.** Betiko Krak bat. Bete bide xuxenetik joaten dena.
- **Arkaitz Estiballes.** Altua, bertsotan ondo egingo duena.
- **Xabi Paia.** Arrisksua, eta bertsotan asmatzen badu, latza izango da.
- **Erika Lagoba.** Saioari kolorea jarriko dio. Bera da kanporaketako emakume bakarra, eta hori nabaritutuko da.

dutik 20 kilo galdu ditut, baina gero, beldurtzen hasi nintzen udan zehar. Buruari buelta asko ematen nintzen eta bertsoaren mundutik pixka bat aldentzea erabaki nuen. Gero, ikasturte hasieran berriz zentratu naiz, eta prestatzeko ekin.

Zeintzuk uste duzu direla zure indarguneak eta zeintzuk, ahuleziak?

Ofiziotan eta bakarkako lanean, sentibilitateari garrantzia handia ematen diot. Maila teknikoan, naizena naizela uste dut, hortan ez dut izugarrizko saltorik egin. Baina, diskurtsoan ahaleginduko naiz, eta horretan asmatu dezakedala uste dut. Ahuleziei dagokionean berriz, onartu beharra daukat, ez naizela batera erregularra. Une batean ondo, baina agian beste batean erortzen naiz, eta erregulartasun falta horrek beldurtzen nau.

Aurreko hiru saioak ikusi, sorpresarik eraman al duzu?

Bai, handiak. Lehena Zestoako saioan bertan, Jone Uriak irabazteko ezusteko handia izan zen. Bertsolari oso onak zeuden, eta bizkaitarrarena sorpresa handia izan zen. Bigarrena berriz, ezusteko deusategina izan zen, Irazu eta Agirrerena hain zuzen ere. Askotan estimatzen baitituz, eta gertutik bizi baitituz. Badakit biek ere bertsotan oso ongi egiten dutela, maila ona dutela, baina egun txar batengatik kanpoan geratu dira. Dena den, Txapelketa hori da.

Parte-hartzaileen ia erdiak gipuzkoarrak izanda ere, oraingoz, hiru kanporaketetatik bi, bizkaitarrek irabazi dituzte. Zer gertatzen da?

Bai, gainera, badirudi, sakonean, Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko guda txiki bat dagoela. Orain hala ere, saio garrantzitsuak datoz, eta ea zer gertatzen den. Gu ere hor gaude, eta ea datuak aldatzen ditugu.

Andoni Egaña bosgarrenaren bila joango da. Eramango al du? Eta bestela nork?

Egia esan, eramango balu ere asko poztuko nintzateke, asko estimatzen dudanez pertsona baita, eta makina bat da bertsotan. Hala ere, ez dakit zergatik, baina Maialen Lujanbioeren urtea izango dela uste dut. Ez dakit gogoa edo pronostikoa den, baina gustura ikusiko nuke Maialen, txapela janzten.



AHT Gelditu!-k Tolosa eta Alegiako tartean alegazioak egiteko deia egin du

AHT » Edonork sinatu ahal dituen alegazio-orriak prestatu dituzte eta eskualdeko ohiko taberna eta lekuetan utziko dituzte.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarranek Alegia eta Tolosa arteko desjabetuei alegazioak egiteko eskatu diete. Izan ere, Estatuko Aldizkari Ofizialak tartea honetako desjabetuen zerrenda argitaratu berri du. Alegazioak asteazkena, hilak 21, bitarte aurkeztu daitezke eta el-

karlaneko kideek esan dutenez, alegazio-orri orokorra prestatu dute edonork sinatu ahal izateko.

Alegazio-orriak eskualdeko ohiko taberna eta lekuetan utziko dituztela ere esan dute. Astearte iluntzean pasako dira leku hauetara alegazioak jasotzera.

Sinatzaileek bost puntu onartuko dituzte

Prestatu duten alegazio-orri sinatzen dutenek «Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzaren bitartez jabetza nahitaez kentzeko hasitako prozedura bertan behera uzteko, edo epea luzatzea ukitutako herritarren eta udalerrien -Tolosa eta Alegia- eskubi-deak eta interesak ponderatzeko

dituzte. Lehenik eta behin, «jabetza nahitaez kentzeko espediente-ak ukitutakoei» elkartasuna adieraziko diete. Era berean, «Sustapen Ministerioari jabetza nahitaez kentzeko hasitako espedientea hasteko moduarekin» ezadostasuna adieraziko dute «aurrez ez delako ez abisatu ez eta jakinarazi». Sustapen Ministerioari «Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzaren bitartez jabetza nahitaez kentzeko hasitako prozedura bertan behera uzteko, edo epea luzatzea ukitutako herritarren eta udalerrien -Tolosa eta Alegia- eskubi-deak eta interesak ponderatzeko

behar beste denbora izateko» ere eskatuko diete. Bestalde, alegazio orriak Espainiako Enpresarien Elkartearen hitzak ere nabarmen-tzen ditu, hau da «merkantzien trenbide garraiorako, abiadura handia ez da egokia».

Bukatzeko «Frantziako Kontu Auzitegi Txostenek, Abiadura Handiko proiektuen errentagarritasun sozio-ekonomikoaren tasa gogor jaisten ari direla esan zutela, eta beraz trenbide konbentzionaleko sareak hobetzearen aldeko apustua egitea gomendatzen zuela» ere adieraziko dute alegazioen sinatzaileek.

Zelarainen 10 urteko espetxe zigorra berretsi du Gorenak

ERREDAKZIOA

Amnistiaren Aldeko Mugimenduan (AAM) aritzeagatik Espainiako Auzitegi Nazionalak 21 laguni jarritako espetxe zigorra irailaren 23an berraztertu ondoren, Espainiako Auzitegi Gorenak berretsi egin du epaia.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak (AAB) eta Askatasuna «erakunde terroristak» direla ebatzi zuen Auzitegi Nazionalak epaiketean, eta haietan aritzeagatik espetxe zigorra jarri zien 21 laguni, haietako hamabi espetxeratu zituztelarik, tartean Villabonako Julen Zelarain. Epaiarekin ados ez, eta helegitea jarri zuen defentsak.

AAMaren erantzuna

Epaia erantodotik AAMak bere lana «erabat publikoa» izan dela eta izango dela adierazi du. Era berean, Espainiako Estatuak «errepresorik basatia bururaino eramateko bere tresna eta aparatu guztiak aktibatuko» dauzkala esan du eta horregatik iritsi dela epaia.

Laburrak

Agirresarobek marka ona egin du Ironmanean

TOLOSA ● Aimar Agirresarobe gazteak oso marka ona egin zuen pasa den asteburuan Hawaiiako (AEB) Ironman proba ospetsu eta gogorrean. 9 ordu 55 minutu eta 13 segundoko marka egin zuen tolosarrak, nahiz eta bizikletan zihala erori ere egin zen.

Poxpolo, Mokolo eta Konpainia, gaur

LEABURU ● Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoak *Mekaxis Mariatxi* antzezlan eskainiko dute gaur, 17:30ean Leaburuko pilotalekuan. Saioa euskaraz izango da eta ordu bete iraungo du. Emanaldia bukatu ondoren txokolatada izango da Udalaren eskutik.



LABek elkarretaratzea egin zuen atzo, Tolosan. R. CALVO

«Azken erasoak» salatu ditu LABek eskualdean

ERREDAKZIOA

LAB sindikatuak Tolosa, Ibarra, Villabona eta Zizurkilen elkarretaratzeak egin zituen atzo, asteartean izandako 10 atxilotetako salatu eta «erasoen gaitetik Euskal Herriaren aldaketa» aldarrikatzeke.

Era berean, gaur 17:00etan Donostiako Antiguozotik abiatuko den manifestazioan parte hartzeke deia ere egin zuen. Manifestazioa Euskal Herriko gehiengo sindikalak deitu du, hau da, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRUK, eta ezker abertzaleak,

EAJk, Aralarrek, EAK eta Lokarrik ere bat egin dute deialdiarekin.

Erdiak kartzelara

Atxilotuetako Rufi Etxeberria eta Ainara Oiz ezker abertzaleko kideak baldintzarik gabe aske utzi zituzten atzo. Amaia Esnal, Mañel Serra eta Txelui Moreno ere aske utzi zituzten, bermea ordainduta. Eta gainontzekoak, Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez eta Miren Zabaleta, kartzelara bidali zituen atzo Baltasar Garzon epaileak.

Historiari buruzko hitzaldiak antolatu ditu Lizardi Kultur Elkarteak

Tolosa » Hitzaldietan parte hartu nahi dutenek hilaren 22a baino lehen eman beharko dute izena eta 20 euro ordaindu.

ERREDAKZIOA

Tolosako Lizardi Kultur Elkarteak iaz antolatutako historia ikastarorari jarraipena eman nahi izan dio aurten. Izan ere, pasa den urtean «balorazio positiboa egin genuen, bai matrikula kopuruari begiruta eta beste horrenbeste saioetan izandako parte-hartzeari dagokionez».

Aurtengoan hitzaldi sorta berri bat antolatu dute eta hil honen bukaeran eta azaroan izango dira. Bost saio izango dira, guztiak astelehenetan eta 19:30ean Udaletxeko Pleno Aretoan. Parte hartu nahi dutenek 20 euro sartu behar dituzte hilaren 22a baino lehen Kutxa aurrezki kutxaren kontu korrante honetan: 21010067270011013372. Lizadikoek sarrera egiterakoan matrikularen egilearen izen-abizenak argi uzteko eskatu dute.

» HITZALDIK

■ **Hilak 26.** Mikel Sorrauren historialariak gerra karlisten inguruan hitz egingo du gaztelaniaz. Nafarroa Osoaren kontzientzia berpiztea helburu duen Nabarralde elkarteko kidea da.

■ **Azaroak 2.** Josu Txueka I. Errepublikaren inguruan ariko da. Txueka ere historialari nafarra da eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da.

■ **Azaroak 9.** Iñaki Egaña historialaria diktadura izango du ardatz. Egaña Txalapartako editorea ere bada.

■ **Azaroak 16.** Joseba Ariznabarretak *Transizioa: Arrazonamentu politikoa*ren berreskuratzea izeneko hitzaldia eskainiko du. Irakasle izandakoa da, *Pueblo y Poder* liburuen egilea eta Orreaga taldeko kidea da.

■ **Azaroak 23.** Luis Maria Martinez Garatek *Navarra como paradigma* hitzaldia eskainiko du gaztelaniaz. Telekomunikazioko Goi Ingeniarria da eta Iturralde eta Nabarralde elkarreko kide eta sortzailea ere bada.

90 URTE BERRITZEN.
90 EGUN PREZIO HISTORIKOEKIN.

APROBETXATU EZAZU UNE HISTORIKO HAU 2000E PLANAREKIN

SEGURTASUN OSOKO PLANA:

Artisku orotarako aseguru zure Citroen berrian, errekaratu eta interesik gabe eta langabezi estaldura opari

GOZATU BAITA ERE C4, C4 PICASSO ETA C5 MILLENNIUM EREDUEN SERIE BEREZIAN. MYWAY NABIGATZAILEAREKIN.

CITROËN C3 7.300€tik

CITROËN C4 HDi 11.600€tik

CITROËN XSARA PICASSO HDi 12.800€tik

www.citroen.es

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

G Gutunak

Errepresioaren gaineratik euskal gazteria kalera!

Jarrai sortu zela 30 urte igaro direla ospatzen dugun honetan, gazteon antolakuntza eta borroka aldarrikatzen dugun honetan, gogor salatu nahi dugu aste honetan ezker abertzalearen aurka emandako eraso. Behin eta berriro gure herria erasotu eta jipoitzen duten estatuek oraingoan ere errepresioa erabili dute gure aurkako errezeta bakar gisa.

Espainiar estatu faxistak bere makinaria errepresibo guztiarekin, epaile eta poliziaekin, herri honen aurkako eraso berri bat burutu du: Euskal Herriarentzako proiektu politiko zehatz baten aurkako eraso izan da, independentziaren proiektuaren aurkakoa.

Euskal Herriak bizi duen bidegurutze garrantzitsu honetan proiektu politiko zehatzak neutralizatzen saiatzen dira; ideia politiko eta sozial zehatzak legezkanporatzen dituzte; antolakunde eta eragile zehatzak erasotzen dituzte eta euskal herritar zehatzak atxilotu, torturatu eta espetxeratu. Independentziaren proiektu eta aldarria da estatu faxistek eta haien kolaboratzaileek neutralizatu eta desagerrarazi nahi dutena.

Gazte independentistok ezinbestean erantzun beharra dugu eraso honen aurrean. Bizi dugun une politikoan ozen aldarrikatu behar dugu sasi demokrazia honetan jaio, hezi eta haziak izan garen belaunaldi berriek ezetz esaten diogula estatu zapaltzaile-ukatzailen proiektuari eta baietz esaten diogula Euskal Herriaren independentzia ahalbidetuko duen proiektu burujabeari.

Aste honetan jasandako erasoak sortzen duen egoerarekin eta momentu honetan ditugun sentimenduekin ezinezko egiten zaigu

30. urteurrena jai eta aldarrikapen giroan ospatzea. Egoerak horrela baldintzatuta borroka eta antolakuntza aldarrikatzeko izan behar lukeen eguna erasoei borrokaz eta antolakuntzaz erantzuteko eguna bilakatzen da.

Urriak 17an, gaur, Leitzan 30. urteurrena jai giroan ospatu asmo genuen belaunaldi guztiei dei egiten diegu egun horretan Donostian izango den manifestaldi nazionalan parte hartzea. Gazte garen, izan zineten eta izango zareten guztien ahotsa eta indarra eraman behar dugu Donostiako eta Euskal Herriko kaleetara. Honenbestez, Leitzaroko genuen ospakizun eguna bertan behera uzten dugu, baina denok Donostian elkartzeko deia luzatzen dizuegu.

Nahiz eta asteburu honetako ospakizuna bertan behera utzi, badugu zer ospatua. Beraz, auzo, herri zein ikastetxeetan bildu eta antolatuta gaituzten 30. urteurrena ospatzeko eta gure proiektu politikoaren baitan aurrera pausua ematen jarraitzeko. Izango dugu guztiok batera jai giroan ospatzeko beste aukerarik, bitartean gogor erantzun eta tinko eutsi.

Azkenik deialdi berezi eta zuzen bat egin nahiko genioke egungo euskal gazteri independentistari. Estatuek gure proiektua erasotzen duten bakoitzean altxa gaituzten tinko eta erantzun dezagun gogor, gazteon borrokak emango baitio arnasa eta indarra gure herriari. Aste honetako erasoei herri, auzo zein ikastetxetan tinko, gogor eta harrotasunez erantzuteko deia luzatzen dizuegu.

Lotu independentziari!

Oharra: Leitzako bazkariko txartela erosi zenutenok, joan zaitezte zuen salmenta puntura eta bertan itzuliko zaizue dirua.

Eskualdeko Gazte Independentistak.

Narrazio-ipuina edo bertso idatziak aurkezteko aukera

Leitza » ALKE antolatutako duen IV. Literatur Lehiaketan lanak aurkezteko epea hilaren 31n amaituko da.

narazi dute ALKEko kideek. Horretaz gain, lehiaketara aurkeztu nahi dituzten lanak urriaren 31rako eraman behar dituzte Leitzako Astiz edo Maimur liburu-dendetara.

Narrazio-ipuina edo bertsoak

Bi lan mota aurkeztu ahal izango dira Lehiaketara: Narrazio-ipuina ala bertso idatziak.

Sariei dagokienez, azaroan banatuko dituzte eta parte-hartzaile guztiek izanen dute sariren bat. Sail bakoitzeko irabazleak berri, 150 euro eta bi lagunentzako otordua jasoko ditu.

ERREDAKZIOA

ALKE, Aitzadi Leitzako Kultur Elkarteak, Euskara Zerbitzuaren eta Herriko Liburutegiaren laguntzarekin, IV. Literatur Lehiaketa antolatuko da.

Parte-hartzaileek «idatzeko zaletasuna duten 16 urtez gorako herritarrek» izan behar dutela jakin



Nafar Jokoen lehen jardunaldian hiru partida jokatu ziren atzo Amazabal pilotalekuan. ASIER IMAZ

Nafar Jokoetako partidak jokatu dituzte gaur Amazabal pilotalekuan

Leitza » Atzo hasi ziren Nafar Jokoa eta gaur jarraituko dute. Horretaz gain hainbat txapelketetan aurkitzen dira Aurrerakoak.

ASIER IMAZ

Aurrerako pilotari gazteak frontoira itzuli ziren atzo, aurtengo Nafar Jokoei hasiera emanaz. Amazabalen hiru partida jokatu zituzten eta gaur partidak jarraipena edukiko dute.

Nafar Jokoez gain, beste hainbat txapelketa jokatzeko ari dira.

Nafar Jokoa Amazabalen

Gaurko jardunaldia 10:00etan hasiko da Leitzako Amazabal pilotalekuan. Bertan maila desberdinetako 8 partida jokatu dira. Etxe-koen partetik ondorengo bikoteek irtingo dira kantsara:

Nahia Eskudero-Mattin Sukuntza; Joseba Eskudero-Mikel Zabaleta; Joanes Illarregi-Beñat Bitorralba; Ander Alduntzin-Aimar Gil; Julen Goikoetxea-Iñaki Saralegi; Ander Eskudero-Xabi Zubiria eta Mikel Sagastibelza-Lenitz Galartza.

Jaialdiko hirugarren partidaren Aurrerako bi bikoteak jokatu

dute elkarren aurka. Alde batetik Hegoi Txoperena-Oier Goikoketxeak eta bestetik Koldo Hernandorena-Mikel Zabaletak.

Bihar Irurtzunen jokatu dute 10:00etan hasiko den jaialdian Iñigo Mitxaus-Ibai Gil bikoteak.

Beste txapelketak

Gartzarongo Txapelketako bi partidetan leitzarrak egongo dira gaurkoan. 10:00etatik aurrera Olano-Tolosak jokatu dute eta 16:00etan Eskudero-Sanchezek.

Lizarrako Txapelketan azkenik, Zubiriak jokatu du gaur 17:30ean.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfobrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Telefono zenbakiak: 638 94 46 04 (Gurutze) eta 695 70 82 71 (Belen).

GALDUTAKOAK

■ **Makila.** Pasa den urriaren 10ean Lizarrustin Leandro izena grabatuta daraman makila galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, deitu dezala 635 74 40 82 edo 676 86 54 17 telefono zenbakietara. Aurkitzen duena sarituko da. Mila esker.

SALGAI


■ **Sutarako egurra.** Sutarako egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrotara motua. Etxera eramaten dugu. Interesatuak, harremantetan jartzeko telefono zenbaki honetara dei dezakete: 615 75 57 62.

Leitzaldeko Bilgune Feministaren aurkezpena

ERREDAKZIOA

Leitzaldeko Bilgune Feministak aurkezpen ekitaldia burutuko du hilaren 23an, 20:00etan, Leitzako Atekabeltz gaztetxean. Aurkezpen ekitaldia egingo dute bertan

eta herritarrek parte hartzea gonbidatu nahi izan dituzte. Lehenbilgune honetan «ikasturteko erronken, landuko ditugun borroka ildoen zein egitasmoen inguruko aurkezpena» egingo dute bertan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



13°
2°

GOIZA	EGUZKIA
ARRATS.	EGUZKIA
BEROENA	12°
HOTZENA	2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Haur minbiziaz jardunaldiak 10:30etik 13:30era.

Musika

■ **Alegia.** Zumaiaiko abesbatza eta Txintxarri abesbatzen kontzertua elizan 19:45ean.
■ **Tolosa.** SET eta Linea 2 taldeen saioa Bonberenean 22:30ean.
■ **Tolosa.** Tolosako Musika Banda udazkeneko kontzertua Zerkaurian 19:30ean.

Antzerkia

■ **Tolosa.** Glu-glu produkzioek Cocardito madrileño 2 antzezlanaren aurkeztuko dute Leidor aretoan 20:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzotz auzoa, 9. 943 675118.
■ **Leitza.** Campos. M.Z. Elbarren, 52. 112.

» TELEBISTA

28 kanala

08:30. Zahar Berri **09:00.** Nonochan
09:30. Tolosaldean Gaur **10:00.** Kalekantoi **10:30.** On ein! **11:00.** Animaliak
11:30. Tolosaldean Gaur **12:00.** Perretxikoak **12:30.** Trikitraka tron **13:00.** (jarraipena) **13:30.** Mendialdean bizi **14:00.** 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusia **14:30.** Hondartzarako motxilla **15:00.** Erlorlip **15:30.** Wazemank **16:15.** Klipak *(12:30etik 16:30era bitarteko blokea lau ordu errepikatuko da).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Abesbatzen Lehiaketarako txartelak salgai

TOLOSA ● 41. Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketa ate joka dator beste urte batez. Hala, mundu osoko ahotsak bilduko dira urriaren 28tik azaroaren 1a bitarte. Ikuskizun honetaz gozatu nahi dutenentzat, sarrerak dagoeneko salmentan daude. Kutxak sarrera banaketarako dituen hiru bideen bitartez egin ahal izango da txartelen erosketa hau: Servikutxan, Telekomutxa (943.001200 telefonoaren bidez) eta internetez, www.kutxa.net ataritik, hain zuzen ere. Sarrerak salgai egongo dira ere hilaren 17an eta 18an, Leidor antzokiko leihatilan, 17:00etatik 19:00etara eta Lehiaketako saioetan zehar. Helduen sarrerek 10 euro balio dute, eta haurrenek, 4 euro (irudian, iazko irabazleak, Cantemus Mixed Choir hungariarrak). IDOIALAHALDAGA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

Euskal Kirolaren alde Federatu zaitez!

Antolatzailea
0943 6551 6661 6862

VI. Euskal Kirolaren Eguna
Tolosako Usabal Kiroldegia
Urriak 25
11:00 / 15:00

Euskal Federazioen ibarduerak, txapelketak eta erakustaldiak